

Bruno Forte
Vasto- Chietiko gotzainburua.

Koronabirusaren ondoriozko mehatxu aldi honetan

Fedez, konfiantzaz eta leialtasunez aurre egingo diogu probaldiari

Vasto – Chietiko elizbarrutiko kristauei
eta gurekin gogoetan eta otoitzean
bat egin nahi duten guztiei

2020ko martxoren 10a

Zuri idazten dizut, nire herri zarenari, Jaunak nire esku utzi zaituenari, eta Koronabirusaren mehatxuak zigortutako garai honetan gogoetan gurekin elkartuko diren guztiei. Anaiaren eta aitaren bihotzez idazten dizuet, nire nahia baita ez dadila inor bakarrik sentitu edo, are okerrago, denek eta Jainkoak abandonaturik. Topatzen eta ezagutzen ditudanengan pentsatuz eta otoitzean nahiz bihotzean daramatzadan aurpegi asko gogoan ditudala ari naiz idazten, eta inoiz topo egin ez ditudanez ere gogoratzen naiz, gutako bakoitza nor garelako arreta eta maitasuna izateko, duin garelako begirunea eta hurbiltasuna izateko.

Lehenik, gaitzak jo ditueni hitz egin nahi diet: benetako itxaropen-hitz bat esaten diet, askok igaro dutelako jada probaldia, eta otoitz sutsua agintzen diet eguneroko bizimodura eta maite dituztenengana onik itzuli ahal izateko. Gertutasun berezia adierazten diet maite zituzten pertsonak gaitz honegatik galdu dituztenei, hain ustekabean eta azkar kenduta galdu ere: Jaunak eman diezaiela hilei betiko atsedena eta etxekoei haien hurbiltasunaren uste oneko itxaropena santuen elkartasunean, heriotza betiko garaituko duen biziaren garaipenaren ordura arte.

Bigarrenik, gu guztiontzat hitz bat, gure bizimodua bat-batean aldatu beharrak elkartu gaituen honetan, beldurra alderik alde zabaldu delarik, ukiezina eta hain mehatxuzkoa den etsai honen aurrean babesgabe bezala gaudela irudituta. Ulertzen dut ez dela erraza inorentzat beldurra erabat gainditzea, norberarena eta maite ditugunengatik dugun beldurra: hala ere, ona da aitortzea hartutako neurriak eta eskatutako sakrifizioak norabide zuzenean doazela kutsadura ez zabaltzeko. Eguneroko konpromisoei uko egitea, bizitza atsegina egiten duten lagunarteko une horiek uztea, etxean gelditu beharrean gaudela sentitzea, batzuek gogoz kontrako gatibualditzat hartzen dutena, astuna da bai guztiontzat. Nolanahi ere gure onerako dugu arretatsuak izatea.

Indar handiz argi egiten du sendagile, erizain eta osasun alorreko langileak egiten ari diren sakrifizio handien ereduak: esker oneko eta miresmenezko hitz bat doakie horietako bakoitzari. Jaunari gomendatzen dizkiogu eskuzabaltasun-lasterketa honetan bizia ere eskaini dutenak eta

eskatzen diogu zaindu ditzala gainerakoak, zaindu ditzala osasunean eta ematearen esperientzia eder honetan. Eskerrik asko medikuntzako langile guztiei eta gure osasun sistema osoari, hain eraginkorra eta efikaza!

Eskerrik asko gobernatzeko erantzukizunak dituztenei ere, azken denboratan sekula ezagutu gabeko berebiziko larrialdiari aurre egin beharrean gertatu baitira: izan liteke atzerapenen bat gertatu izana, baina jazotzen ari dena zeharo ezohikoa dela kontuan hartuz ulertu behar da hori. Oro har aitortu beharrekoak dira erakundeen ahaleginak desafio honi heltzeko eta herriari nahiz herritar bakoitzari ahalik eta segurtasun, artatze eta lankidetzeta handiena eskaintzeko.

Bereziki eskertu nahi diet apaiz, erlijiosa-erlijioso eta eliztarrei, ospitaletako kapilauetatik hasi eta parroko eta apaiz bakoitzeraino, eskuzabaltasunez gogotik ari baitira lanean gaixoei laguntasun espiritualala falta ez izateko, gaitzak jotako familiak kontsolatzeko eta biktimen etxekoei lagun egiteko. Gaixoei eramandako eukaristiaren ogia, barkamenaren eta gaixoen oliaduraren sakramentuak ospatzea eta leku irekietan hileta-otoitza egitea, grazia da eskuak betean. Jaunak gorde eta lagun zaitzatela zuetako bakoitza eta ernaraz dezala, hainbeste fede eta maitasun bizipenetik, grazia eta bedeinkazioa ugari.

Guztiontzako batere erraza ez den ordu honetan, bakoitzak adi egon behar du zer eskatzen zaigun, hasierako dekalogoko ardurak betetzetik hasi eta mailaz maila zorrozten joan diren neurri zuzen eta ezinbestekoak onartzeraino, kalean jendearekin ibiltzeko ohiturak eta herrialdeko jarduera ekonomikoa geldiaraztea eta guzti, hala nola derrigorrezko agindua: "Gelditu etxean!". Eskari hauek arinkeriak hartzea burugabekeria larria litzateke ez soilik besteekiko, baizik baita norberarekiko eta maite ditugun pertsonetik ere.

Gazteei hitz egin nahi diet: beraientzat sakrifizio handiagoa da etxean gelditzea, indarra eta bizia gainezka baitute. Baina hala egin behar da, etxean egonez maitatuko dituztelako etxeko zaharrak, hala nola gurasoak eta beste senideak. Gainera, gertatzen ari dena aukera bat da batzen gaituzten lokarriak berriz aurkitzeko, familian elkarrizketa eta lasaitasun uneak bizitzeko, eta ikasteko, irakurtzeko eta otoitz egiteko denbora gehiago hartzeko. Gazte maiteak, senti ezazue Jainkoak beti maite zaituztela, heldutasun eta erantzukizun proba batera deituak zaretela zuen onagatik eta guztionagatik.

Garizuma honetan damutu eta bihozberritzeko bide-zatitzat hartzera gonbidatzen zaituztet bizitzen ari garen sakrifizioak, horrela piztuera eta bizi berriko Pazkorako presta ahal gaitezen gutako bakoitza eta guztiok batera. Denei gomendatzen diet jaramon egiteko santu handien jarraibideari, zorigaitz eta izurrite garaietan eten gabe eskatu izan dutenak Jainkoaren askapena gaitzetik otoitzaren bitartez: hala egin zuen San Gregorio Magnok Erromako izurria izan zenean, 590ean; berdin egin zuen San Karlo Borromeok Milango izurri beldurgarrian, 1576an.

Egin dezagun halaxe gaur fedez eta leialtasunez, jakinik Jainko guztiz on eta errukitsuak ez dituela utziko, bihotz apalez eta uste onez, bere esku jartzen direnak. Oraingoan ere nirekin otoitz

egitea proposatzen dut hitz hauekin: *Jesus Jauna, munduko Salbatzailea, inoiz huts egingo ez digun itxaropena, erruki zaitez gutaz eta aska gaitzazu gaitz guztitik! Otoi, zabaltzen ari den birus honen zigorra gainditzea erregutzen dizugu, gaixoak sendatzea, osasuntsuak gordetzea, guztion osasuna zaintzeko ari direnei laguntzea. Agertu guri Zure Errukizko Aurpegia eta salba gaitzazu Zure maitasun handian. Zure eta gure Ama Mariaren bitartekotza eskatzen dizugu, leialki laguntzen gaituenarena. Errege bizi baitzara orain eta beti. Amen.*